

# ardoa

## erosten eta bereizten ikasi



### BOTILATUTAKO ARDO GUZTIAK ETIKETATURIK AURKEZTU BEHAR DIRA

Saltzen diren ardo guztiek behar bezala etiketaturik egon behar dute.

Botilatutako ardo etiketarekin merkaturatuz gero, produktua identifikatu egiten da, eta kontsumitzaileak aukera dauka eman behar zaizkion argibideak jasotzeko (produktuaren jatorria, ezaugarriak edo kalitatea, edota ardo ekoiztu edo merkaturatzeko prozesuan parte hartu duten pertsonen nortasuna).

Erosleak etiketan aurkitu behar dituen argibideek karaktere argi eta handiekin idatzirik egon behar dute. Hona hemen argibideok:

#### • ARDO MOTAREN AIPUA, hots:

- "Jatorrizko deitura", edo "jatorrizko deitura kalifikatua", ardo egin deneko eskualdearen izenaren azpi-azpian.
- "Mahaiko ardo".
- "Eskualdeko ardo", edo "...(e)ko ardo" (babestutako geografi ezaugarri edo adierazpena).
- "Ardo" besterik ez, Europako Erkidegotik kanpoko herrialde bateko ardoak izendatzeko.

#### • BOLUMEN IZENDATUA.

• Produktuaren arduraduna den **BOTILATZAILEAREN IZENA** edo **SOZIJETATE-IZENA**.

• **BOTILATZAILEAREN UDALERRIA** eta **ESTATU KIDEA**.

• **ERREJISTROKO ZENBAKIA**: ardo botilatu duen nekazaritza-industriaren zenbakia, ardo eta edari alkoholduen botilatzaile eta ontziratzaileen errejistrokoa.

#### • ALKOHOL GRADUA.

#### • LOTEA.

### NOLA BEREIZTU ARDO MOTAK ETIKETARI BEGIRATUTA

#### • JATORRIZKO DEITURA DUTEN ARDOAK.

Ontzatutako jatorrizko deitura duten ardoek atzeko etiketa edo Kontseilu Arautzailearen berme-prezintua eramango dute.

Ardo hauek dira **ontze-prozesuaren** (ondua, erreserbakoa edo erreserba handikoa), **mahats-barietatearen** eta **uztaren aipua** eraman dezaketen bakarrak.

#### CHACOLÍ EDO TXAKOLINA.

"Chacolí"- "Txakolina" terminoa "Chacolí de Getaria"- "Getariako Txakolina" eta "Chacolí de Bizkaia"- "Bizkaiko Txakolina" jatorrizko deiturei eta "Arabako Txakolina"- "Chacolí de Álava" deiturari lotuta dago.

Ezin da inola ere "Chacolí"- "Txakolina" terminoa erabili mahaiko ardoak izendatzeko.

#### • MAHAIKO ARDOAK.

Etiketan ezin da ontze-prozesu, mahats-barietate edo uztaren aipua egin, ez eta ardo hauek beste kategoria bateko ardoekin nahasteko bidea ematen duen inolako aipurik ere.

Era berean, ezin da erabili jatorrizko deiturek babestutako inongo eskualde edo udalerriren izenik.

#### • ESKUALDEKO ARDOAK ETA GEOGRAFI EZAUGARRIA ERABILTZEKO ESKUBIDEA DUTEN MAHAIKO ARDOAK.

Mahaiko ardo batzuk geografi izen batekin edo "eskualdeko ardo" aipuarekin merkaturatu ahal izango dira.

Etiketan derrigorrez jarri behar da zein eskualdetakoa den ardo, eta, nahi izanez gero, mahatsaren barietatea eta uza adieraz daitezke.



75 cl

EMBOTELLADO EN ORIGEN POR  
**BODEGA S.A.**  
LAGUARDIA (RIOJA ALAVESA) ESPAÑA

REGISTRO  
EMBOTELLADOR  
Nº 2177-VI

12% Vol

L-197



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAHIA  
NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAHIA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO  
DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA  
Y PESCA